

SESSION 2016

---

**CAPES  
CONCOURS EXTERNE  
ET CAFEP**

**SECTION : LANGUES RÉGIONALES**

**BASQUE**

**COMPOSITION ET TRADUCTION**

Durée : 5 heures

---

*L'usage de tout ouvrage de référence, de tout dictionnaire et de tout matériel électronique (y compris la calculatrice) est rigoureusement interdit.*

*Dans le cas où un(e) candidat(e) repère ce qui lui semble être une erreur d'énoncé, il (elle) le signale très lisiblement sur sa copie, propose la correction et poursuit l'épreuve en conséquence.*

*De même, si cela vous conduit à formuler une ou plusieurs hypothèses, il vous est demandé de la (ou les) mentionner explicitement.*

**NB : La copie que vous rendrez ne devra, conformément au principe d'anonymat, comporter aucun signe distinctif, tel que nom, signature, origine, etc. Si le travail qui vous est demandé comporte notamment la rédaction d'un projet ou d'une note, vous devrez impérativement vous abstenir de signer ou de l'identifier.**

**Tournez la page S.V.P.**

## Commentaire dirigé et traduction

### a) Commentaire dirigé en langue régionale

Thème : Gestes fondateurs.

Galderak :

1. Kontutan har ezazu hiru testuak genero ezberdinetakoak direla.
2. Ager ezazu zein den hiruen puntu amankomuna.
3. Nola molde ezberdinean espresatzen ote dute hiruek kondaira urrunaren memoria galdua, mitoen garaia?

*Document 1.*

### **Barandiaran**

Sei aurpegiko, sei koloreko. Seiak nahastuz, seiak txandatuz. Hala da giza ulerkuntzen kubo magikoa; sei hegaleko aingeruaren kosmobisiaoa.

Okrea ezilkor. Megalitoa iraunkor. Mitoa adierazpide. Liburua berri on. Katedralea gizarte. Hiria etorkizun.

Antzinako gestuak datoz kontzientziaren azalera: orain bat, gero bestea. Bildumenaren bizgarritasuna; zuhaitzen babesia; kronlexaren kontsumazioa; teilaren jabegoa; eguzkiaren bidaia; habearen halabeharra...

Kultur ikuspegia hezur-mamitzerakoan, gauza urria zen aztarnategiek ziotena: harpe, hilobi, margo, egitura. Aberatsago zitekeen ele zaharren usmoa, erlatoetan antzirudituz zer den mundua.

Gurpildu zuen, azkenik, funtsaren funtsa: "Berez inor ez da ezer. Beste baten esku dago orobiraren izaera".

Arkeogaiak mitoen bidez oldozterakoan, itinerarium mentis bateko zantzuak ziren, -lekuko estimagarri- mimodramak eta ikonoak.

(Oiartzun, 1990-otsaila-22)

Juan Mari Lekuona, *Mimodramak eta Ikonoak*, 1990.

## Tartaroa

*Eder da eder besta-eguna,  
Okher ez badu biharamuna.*

Izenik ez duen mendi gora baten kaskoan zagon tartaro izigarri bat, harroka muthurrari burdinaz josia, egin izan zituen gaixtakeria handien gatik. Debrua goan zitzayon xixtu firrintaka, su phindarrak bidean zariotzala. Tartaroari erran zion: Nik manatuko darozkiatan guziak egin nahi badituk, nik urratuko ditiat hire burdinak eta hortik atheratuko haut.

Tartaroak gogotik agiundu zuen eginen zituela debruak manatuko ziotzan guzi guziak. Orduan Satanek trenkatu zituen Tartaroaren burdinak, xotx iharrak izan balire bezala. Lepho zakitik hartu zuen tartaroa eta xirurika eraman zuen lasto izpia bezain errexki, urruneko itsaso gaitz haren bazterrera. Hamar idiren larruz egin zuen harritzeko zahagi bat; haren gainean ixtaklok ezarri zuen tartaroa, eta erran zion: Habil aitzinean dukan lur hortara, eta horko jendeari egiok ahal dukan min guzia.

Tartaroa bozik eman zen itsasora; bere beso luzeak erabiltzen zituen hala nola mariñelek arrauak. Hariz hariz, ardietsi zuen leihorra.

Jende guzia bildu zen haren ikustera; eta egundaino ez baitzen negurki hartako gizonik aurkhintza hetarat agertu, batzuk miretsiz, bertzeek beldurrez, orok egin zioten besta eta ongi-ethorri hainitz.

Bandan behar zen hazi, eta etzen errex. Xahal bat osoa jaten zuen gozaltzeko; eguerdi arratsetan etzuen gutiago behar. Hola, laster iretsi zituen tokiko xahal guziak. Orduan hasi zen haur jaten; eta norbait arranguratzera ausartatzen bazen, burutik behera jorik, odola zariola gordinik jaten zuen hura ere.

Etzakioken gerlarik eman: haren larrua hain zen gogorra, non ez baitzen tresnarik hura zilhatuko zuenik. Jendea izitu zen; oihan eta harziloetara ihes egin zuen.

Hortau ziren, lar-abereen pare, belhar eta basa fruituak hazkurri, uhartzean agertu zenean untzi bat. Pena gaitzak leihorrera hurbildu zuen laster. Mariñelak lurrera jautsi ziren. Beldurrak harziloan gordea zadukan gizon bat, bere zokhotik atheratu zen, arrotzak ikusi zituenean eta erran zioten: Nor edo nongoak zarete zuek? — Eskaldunak gare. — Ongi! ongi! badakit zuen fama, badakit prestuak zaretala eta gizon bihoz dunak. Horren gatik albiste salbagarri bat nahi darotzuet eman. Ez bide dakizue toki txarrean zabilzatela. Bada hemen tartaro ezin-bentzutuzko bat, zeinari gozo baitzayo kristau haragia.

Bethor! bethor! diote Eskaldunek, mintzatuko gare debruak berak ezin ikhasi duen mintzayaz. — Berautzue, dio gizonak; haren larrua burdina bera bezain gogorra da, harmaz ezin zilhatuzkoa; ahotik eta begitik baizen ez dakioke deus egin.

Solasean daudelarik, hor agertzen da tartaroa. Arrotzak ikusi ditueneko lasterka heldu da eta irrintzinaka, bere ustez ase on baten egitera.

Ganetxiki Hendayarra orduan baliatu zen gizonak eman albisteaz. Bazuen habala bat marrazo larruz egina. Xisparik etzen oraino dembora heyetan. Hendayarrak habalan ezartzen du harri bat, eskura heltzen zayon biribilena. Hirur edo lau aldiz birungatzen du habala buruz gainetik, eta igortzen harria hain zuzen eta zorrotz, non lehen aldian tartaroari lehertzen baitio bere begi baxharra.



Digantea lurrera doha. Lazgarri zen haren ikustea herrautsean zalapartaka, ihauska eta marrumaz. Harri, zur puska, atzeman guziak hortzez karruskatzen zituen. Ez da hortaz izitu Hendayarra. Badohako tartaroari, lotzen zayo ileetarik, eta oihi egiteko ahoa ideki duen batez, handik ezpata sartzen dio bihotzeraino.

Bizi ziren jendeek jakin zuteneko tartaroaren heriotzea, ilkhi ziren gordegailuetarik. Ez dute geroztik leheneko tzarkeriarik egiten, orai ezagutzen dute Jainko legea. Mariñeleri behar-orduetan laguntza ematen diotete. Eskaldunek bereziki besta handiak izaten dituzte heyen leihorretara jausten direnean, jan-edanak eta bizigailuak oro urrurik.

Bainan non da toki hura? urrun gure lurretarik, urrun gure itsaso etarik. Satharitzeko eta Leizarazuko ene bi kusiak, eta Buzunaritze Salaberriko semea, Ziburun egoten eta itsaso guzietan barna ibiltzen direnak, izatu dire urruneko toki hartan. Heyen ganik dakitzat gauza horiek; seguratu naute arras egiak direla; eta gerthatu ez balire, etzarotetan naski segurantzaz hori emanen; heyek ere tokiko jendearen ganik ikasi dituzte.

Jean-Pierre Duvoisin, *Baigorriko zazpi liliak* (1884-1885)

*Document 3.*

### **Nestor Basterretxea: Lehen oroimenaren pisua**

Koldo Mitxelena Kulturuneak Nestor Basterretxearen lanaren erakusketa prestatu du. Publizitateko marrazkigintzatik hasi eta 1950eko hamarkadan eskulturan murgildu zen arteko lanak ikus daitezke bertan. 153 artelan denera. Gehienak jendaurrean inoiz erakutsi gabeak. Hauetariko 14 koadro, Argentinan margotutako gurutze-bidearen irudiak dira. Pintura hauez gain, kartelak, argazkiak, altzarien diseinuak, collageak, marmolean eta enborrean landutako erliebeak eta zeramikazko ontziak ikus ditzakegu.

Nestor Bermeon jaio zen, 1924an eta 2014an hil zen Hondarribian. Gaztetan, Espainiako Gerra zela eta, Argentinara ihes egin zuen gurasoekin. 1952an Euskal Herrira itzuli zen. Ameriketara igaro zituen urteetan, pintura eta marrazkigintza jorratu zituen. Atzerrian sortu zitzaion arkitekturarako zaletasuna. Berak zioen lerroak planoan gauzatzeko abenturak eta misterioak erabat liluratzen zutela. Euskal Herrira bizitzera etorri zenean ekin zion eskulturgintzari.

Nestorren artegintza oso anitza izan da. 50eko hamarkadaren bukaeran, Equipo 57 taldeko kide izan zen, 1961ean, São Pauloko VI. Bienalean Espainiaren ordezkari. Fernando Larruquert-ekin batera Pelotari (1964) eta Ama Lur (1968) filmak egin zituen. 1966an Nestor Basterretxeak, Jorge Oteizak, Remigio Mendiburuk, Jose Luis Zumetak, Eduardo Chillidak, R. Ruiz Balerdik, Amable Ariasek eta Jose Antonio Sistiagak Gaur taldea osatu zuten.

Basterretxeak zioen Euskal Kosmogonia deituriko eskulturak zirela bere artegintzaren bizkarrezurra. 1972an, Joxemiel Barandiaranen idazlanak irakurri ondoren, antzinako mitoen sinbologia irudikatu zuen egurrean. Euskal Kosmogonia eta hilarriak dira bere sormenaren emaitzarik garrantzitsuenak. Kosmogoniaren sinbolo hauek Bilboko Arte Eder museoan daude. Gaur egun, Koldo Mitxelena Kulturunean ikusgai dauden miniaturak jatorrizkoen erreproduzioak dira. Basterretxea abangoardiako hizkuntzaz baliatu zen euskal tradizioa eta mitologia irudikatzeke.

HABE, Ikasbil

## b) Traduction

Texte en langue régionale à traduire en français.

### **Nabarreko hiri-nausian**

Sartzen gira Iruñan patar ezti bati goiti, kazerna berriak diren hegitik. Barnaxago bagoazi, datxikola, etxe-andana handi baten artetik, berriki eginak hok ere.

Adituak ginen jadanik Iruña urthetik urthera aitzinatuz zoala, ederrago, garbiago, argiago ereba, urrundarik ekarri ur eta elektrikari esker. Ez dezakegu uka badela aurrerapen asko, bainan ez baita arabez merkatu ez besta eguna, nehor guti da ezagun karriketari; erdia lo bizi dela Iruña erraitera ginoazke, ez bagine orhoit San Ferminetako jaiek urthe guzietz, aste bat dirauno, burburbur pizten duten alaitasun erhoaz.

Beribileko ene lagunak behatzen du xitez buru-gaineko saretik dilindan ezarria duen sakelorenari: hamabiak eta hogoi! Ez othe da berantegi, hiriko edergailuen ikusteko?

Jean Etchepare, *Beribitez* (1931)

1. Comment comprenez-vous l'emploi de la forme "datxikola".

2. Que signifie "nehor guti"?

Texte en français à traduire en langue basque.

### **L' "Union des poètes"**

Un cousin germain de ma mère habitait Paris, sur l'autre rive. Sa femme, qui ressemblait beaucoup de visage à madame de Sévigné, accentuait encore son effet en disposant comme des oreilles d'épagneul, à la manière Grand Siècle, ses admirables boucles blondes ; elle n'avait du reste que ce défaut-là et celui d'être poétesse, à part quoi elle était intelligente et bonne, et m'affectionnait, celle-ci encore, comme un véritable neveu. Une fois par semaine, elle donnait un thé aux membres d'une certaine « Union des poètes », dont elle faisait elle-même partie. Oh ! le singulier petit monde que j'ai connu là, presque chaque jeudi soir !

Pierre Loti, *Le roman d'un enfant* (1890)

1. Justifier votre choix en traduisant "sa" ("Sa femme").